

KOMUNIKAZIOAREN IKERKUNTZARAKO METODOLOGIA

Iñaki Zabaleta Urkiola
Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1997

Laurehun orrialdetan, EHUko irakaslea den liburuaren autoreak, komunikazio publikoa ikertzeko, han eta hemen erabiltzen diren tekniken deskripzio, azalpen eta errepasso interesgarria eskaintzen du. Liburuak, beste guztien gaineratik –eta horiek ez dira gutxi–, ezer baldin badu irakurle potentzialarentzat hauxe da: aitzindaria dela, bakana dela; hain luze eta zehatz ez da inoiz berba egin komunikazioaren ikerkuntzaren testuingurutik, euskaraz. Ikerkuntzaren alorrean, enpirismoa eta interpretazioa uztartu ditu autoreak bere liburukote metodologikoan.

«Azterketa hau aurrera eramateko zein metodologia erabili beharko nuke? *Iker-asmo* honi ikerketa kuantitatiboa ala kualitatiboa ezarriko diot, ala pixkat bakoitzetik? eta, zelan uztartu irizpide hain urrutikoak ei direnak?» Ikerketa-aurreko buruhauste galantak dira horiek edozein ikerlarirentzat.

Metodoak aztertzeaz arduratzen den zientzia da *metodologia*. Komunikazioa aztertzeke metodo, prozedura eta postulatuen multzoa eskaintzen du liburuak. Liburuaren ordenatua da, pausuz-pausu deskubritzen den horietariko.

Irakurleak atal interesgarri asko aurkituko ditu ikerkuntza arautzera kontsakturiko lanean. Irakurleak, besteak beste, interesgarritzat joko du *Komunikazio-ikerkuntzen egoera* deituriko atala, non masa-komunikazioaren

ikerkuntza-tradizioak, paradigmak eta metodologiak azaltzen baitira; edota *Fidagarritasuna, baliagarritasuna eta hipotesiak* atala, atal hori erantzutera baitator ikerlariarentzat ia-existentziala den galdera bati: «gingo dudan lana sinisgarria izango al da, edota ze baliagarritasun izan dezake nik aztertutakoak?».

Laginketa: buruhauste barik, ikerketan aurrera egiteko erreminta

Laginketaren kontzeptualizazioa azaltzean egin du autoreak, lan teoriko-metodologiko orokor honetan, aha-legina. Ikerketa egin behar denean, ez dago, normalean, gaiarekin zerikusituzuzena duen unibertso osoa arakatzetik. Horretarako dira laginak. Laginak muestrak dira, adibideak, unibertsoaren ordezkotakoak, horren isla ikonikoak, horren irudi-antzeko klonikoak. Laginaren gainean egiten da, normalean, ikerketa. Kontua ondoren dator: estrapolatzeko modukoa al da laginak eman-dako ondorioa unibertso osora?

Autoreak hasieratik argitzen du:

Bi lagin-mota nagusi bereizten dira batez ere: probabilitatezko eta ezprobabilitatezko laginak. Normalean, ongi hartutako probabilitate-laginak unibertsoa ongi ordeztzen duela kontsideratzen da, baina gehienetan hori horrela izanik ere, ezin da esan beti horrela denik. Okerragoa da ez-probabilitatezko laginaren kasua, zeren eta honetan ezin

baita jakin zer antzekotasun estatistiko duen laginak unibertsoarekiko.

Probabilitatearen printzipio matematikoaren arabera aukeratu behar da probabilitatezko lagina; probabilitate matematikorik ez du onartzen, ostera, ez-probabilitatezko laginak. «Zein aukeratu bada?» dateke ikerlariaren galdera. Erantzuna ez da erraza. Ikergaiak eramango gaitu hautaketa egokira.

Lagin egokiaren bila, ikerlariak, beraz, lehendabizi, zer komunikabide-mota (telebista, irratia, egunkaria...) aztertuko duen erabaki behar du, arakatu gurako lukeen gaiari zer inguru geografiko (Euskal Herria, Euskal Autonomi Erkidegoa, Estaturen bat...) ezarriko dion ebatzi behar du, zer garai (urte bat, urte-multzo bat, mendea...) analizatu behar duen hautatu behar du, zer eduki konkretu (titulargintza, egunkari osoa, gazte-programazioa...) ikertu gura duen sententziatu behar du. Hori horrela, ikerlariak, ondoren, lagin-erak, lagin-tamainak eta komunikabide-motak uztartu behar ditu.

Hedabide periodikoa hautatuz gero, mezuak aztertzeko, esate baterako, komunikabide-lagina, data- edo ale-lagina eta sail-laginak dauzka ikerketa aurrera eramateko. Laginketa-eredurik erabilienak hor: laginketa aleatorioa, sorta-laginketa, laginketa estratifikatua, aste-konposatua, aste-jarraia...

Hedabide ez-periodikoa hautatuz gero, laginketa prestatzeko eredu matematikoez gain inferentzia-ereduak erabili beharko dira. Unibertsoak kontrolagitzak direnean, demagun Soviet Batasuneko kartel politiko iraultzaileen kasuan, edo komun eta zerbitzu publikoetako grafiti eta pintaden kasuan, edota idazleren baten poesia-

ren, zein ikasleen arropa-ereduen kasu bitxietan, ikerlariak ihes egin beharko die analisi-eredu arruntei eta bere unibertsoaren ahuleziari ihes egiteko moduko metodologia eraiki beharko du, kasuan-kasuan laginketa-eredu propioak ondo estudiatuta.

Interpretazioaren ordua

Ikerlariak, laginari ezarritako estudio piloitoak ikerketa-erreminta egokiak direla azaldu duenean, ikerketaren datuak eskuartean dauzkanean, eduki-analisia burutu duenean, laborategi-esperimentuak aurrera eraman ditue-nean, inkestak egin ditue-nean, ezta-baida-taldean emaitzak jaso ditue-nean, kanpo-esperimentuak amaitu ditue-nean... eta bere esku dauden datu horiek guztiak fidagarriak direla frogatu duenean, estrapolatu eta inferitu beharko du, ondorioztatu beharko du bere lana amaitzeko.

Hipotesien gaitzespena edo onarpena adierazi beharko du ikerlariak. Ondorio logikoetatik hipotesi berriak aurreratu behar ditu ikerlariak, galdera berriak egin behar dizkio bere buruari, proposamen berriak lerrotu behar ditu: zelan bere etorkizun ikerlariarentzat, halan, ikerketa horren berri edukita, aurrerago abiatu gura dutenentzat ere.

Konklusioa

Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia: metodo enpirikoak eta interpretatzaileak liburua, IÑAKI ZABALETA irakasleak idatzitako liburua, edozein ikerlariaren mahai gainean, esku-ragarri, eduki beharreko liburua da.

Jose Inazio Basterretxea